

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Otsailak 27  
397. zenb.

## Nolakoa da Arrasateko langabea?

Hiru langabetik bi, emakumeak dira,  
20 eta 35 urte bitartekoak  
eta eskola ziurtagiria dutenak.

IKUSPEGIA: ITXARO ARTOLA • KIROLAK: BEÑAT OLALDE  
IRITZIA: LUIS FERNANDEZ • 30 GALDERATAN: AGUSTIN ARANBURU




*Edo lanez aldatzen duzu,  
edo umezain bat hartu,  
edo familia osoa zoratu,...  
edo bestela geurera etorri:*

# IKAS 10

**IKAS 10, LA MERCED IKASTETXEAK**, zerbitzuen kontzeptu berri bati jarri dion izena da. Zerbitzu hauek zuei hobetoen datorkizuen modura uztar daitezke: **ORDUTEGI ZALUA**, goizeko **07:30**etatik **arratsaldeko 18:00ak arte**, zuentzat kosturik gabekoa. **HAURTZAINDEGIA**, 2 urtetik 6 urtera arte. **AUTOBUS** zerbitzua Eskoriatzatik. **JANGELA** edo jangela libre, eta abar. Irakaskuntza kalitaterik hobereana, zerbitzu zabal eta onenekin, eta hori guztia **preziorik hoberean**, zure seme-alaben heziketak ez ditzan hankaz gora jarri, ez zuen elkar bitzta, ezta zuen aurrekontua ere. Dei iezaguzu, galde ezazu eta aukerarik hobereana hartu.

**Zuen beharretara moldatuko gara eta.**



*Haur hezkuntza  
Lehen hezkuntza • DBH  
2 urtetik 16 urtera*



## Haurtzaindegia

2 urtetik 6 urtera

07:30etatik 18:00ra



*la merced*  
IKASTETXEA

ARRASATE

(943) 79 27 73

La Merced-ek  
**GEHIAGO**  
eskaintzen dizu.



# Haratuzteetako miseriak

**E**txeko pertsiana jaso eta ezohiko irudi batekin egin nuen topo inauteri zapatuan: pareko atartearen aurrean giza itxurako zerbait zegoen lurrean botata. Logurak edo miopiak eragindako ilusio optiko hutsa zela bururatu zitzaidan, baina ez horixe. Hezur eta mamiduna zen, erdi eserita, erdi etzanda, ikusten ari nintzena.

Tolosatik bueltan edo, eskalez mozorrotuta ibili ostean, mozkor-mozkor eta etxerako bidea aurkitu ezinik hantxe loak hartutako norbait itxuraz. (Ez da, bada, txiroen antzera, jaka zarpail bat jaztea inauterietako azken orduko baliabiderik errazena?).

Edozein modutan



Itxaro Artola

ere, auzokide berriak ipurdipean zeukan kartoi zatiak argitu zidan zergatik zegoen hantxe. Aterpebakoan kastakoa zen. Handik gutxira berriz lehioratu nintzen eta hantxe segitzen zuen, luze etzanda ordurako. Amets goxotan galduta ibiliko zen akaso, baina pozaldia berehala bukatu zitzaion: udaltzain bikote batek esnatu eta altxarazi zuen, auskalo

zein araudiren izenean eta agurea, azalpen ofizialak marmarka aditu ostean, keinu batez joan zen leku hartatik.

Gertatutakoa ez zen berez harritzekoa, gero eta eskale gehiago ibiltzen da eta, gure kaleetan. Azoka eta jai egunetan kasu, paisajearen zati natural bihurtu dira kasik. (Txiroak dira,

baina ez ergelak). Hala eta guztiz ere, nola esan, ni behintzat ez naiz ohitu oraindik eta, neurri batean, ezta nahi ere. Arazoak bost axola didan seinale litzateke.

Batzuetan lotsa sentiarazi didate oinarritzko premiak asetuta izateagatik, baina zalantzak ere sortzen zaizkit eskean dabiltzan askok jasotakoarekin egingo dutenaz. Espaloietan belauniko, besoak zabalik, paper zati batean euren miserien berri emanez, tabernan eta dendetan edo etxeko atarian, edonon aurkitzen ditugu, perretxiko txarrak letxe.

Egunetik egunera ari da hedatzen, izurri beltza baino aguroago, sistematik kanporatutako taldea. Zapatukoa bezalako egoerak sarri gertatuko dira aurrerantzean ere. Mozorroren zentzua aldatzen ei doa urteen poderioz eta honez gero pobrearenak, barrea beharrean, zer pentsa eragin beharko liguke.

**“Pobrearen mozorroak zer pentsa eragin beharko liguke”**



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Oñate kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Jose Aranzabal. **Kazetariek:** Ixaro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publikitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo. (Tel.: 77 06 15). **Administrazioak:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Elveberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joverra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Unibarren, Bixente Pagoda, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Baulista Agoria, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Mattilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñate).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan irazten erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Goio Arana.



Arrasateko Udaleren laguntza.



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza.




Eusko Jaurlaritzako Kultura Saillaren laguntza.

## 397. zenbaki honetan

1998ko otsailaren 27an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen .....	<b>11/12</b>	Kulturaren txokoa .....	<b>29</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Haratuzteak 98.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>30/31</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Denborapasak .....	<b>32</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Kirolak jokoan.....	<b>20/23</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>
Astearen errepasoa.....	<b>9</b>	30 galderatan .....	<b>28</b>	Fotozaharra .....	<b>34</b>

<i>Ikuspegia</i>	
<b>Itxaro Artola</b> .....	<b>3</b>
<i>Euren ikuspegitik</i>	
<b>Luis Fernandez</b> .....	<b>8</b>
<i>Haratuzteak 98</i>	
<b>Mozorro jai</b> .....	<b>14/15</b>
<i>Aurrez aurre</i>	
<b>Xabier Zubizarreta</b> .....	<b>24/25</b>
<i>Asteko gaia</i>	
<b>Langabetu arrasatearraren soslai</b> .....	<b>17/19</b>



Arrasateko langabezia tasa gaur egun, %5 ingurukoa da. Langabetuen bi herenak emakumeak dira.



27

ostirala

1

igandea

2

astelehena

3

asteartea

■ ZINEA

L.A. Confidential. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ ZINEA

George de la jungla. Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan. L.A. Confidential. Arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ ZINEA

L.A. Confidential. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ ZINEA

L.A. Confidential. Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

28

larunbata

■ ZINEA

George de la jungla. Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan. L.A. Confidential. Arratsaldeko 19:00etan eta 22:00etan.

■ ABESBATZA  
TOPAKETAK

Goizeko 11:00etan, entseia Monterronen. 12:00etatik 13:00etara abesbatzen emanaldia kaleetan zehar. 13:30etan emanaldia Monterronen. 15:00etan, bazkaria San Frantzisko Xabier ikastolako jantokian. Eguraldi txarra eginez gero, saio guztiak Amaia antzokian izango lirateke.

■ ITXARO BORDA  
MONTERRONEN

Itxaro Bordak, olerki emanaldia eskainiko du Monterronen, arratsaldeko 18:30etan. Emakume Sailak antolatuta.

■ IPUIN KONTALARIA

Ipuin kontalaria, Familia eta Gizarte Heziketarako zentruan, arratsaldeko 16:30etan.

■ PRENTSAURREKOA:  
GAZTE-ASTEIA

Martxoaren 9tik 15era, herriko hamalau gazte taldek antolatutako Gazte astea azaltzeko pentsaurrekoa Monterronen, arratsaldeko 16:30etan.

■ HITZALDIA:  
EMAKUMEAK

Gaia: Nola ikusten dugu emakumeok geure burua. Arratsaldeko 16:00etan, Familia eta Gizarte Heziketarako zentruan.

■ HITZALDIA: IKASTOLA  
ONDO EZAGUTU

Gaia: Etxetik ikastola ondo ezagutzeak konfiantza ematen du. Arratsaldeko 18:00etan, Uribarriko Ikastolan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

■ ZAZPI ESKALE TALDEA  
OÑATIN

Zazpi Eskale taldeak emanaldia eskainiko du, Oñatiko gaztelekuan, gaueko 22:00etan. Sarrera 500 pezeta.

■ PARKE EOLIKOEN  
AURKA MENDI IBILALDIA

Leitzan izango den mendi ibilaldirako autobusa, goizeko 09:15etan irtengo da, Arbolapetatik.

■ HITZALDIA: IKASTOLA  
ONDO EZAGUTU

Gaia: Etxetik ikastola ondo ezagutzeak konfiantza ematen du. Arratsaldeko 18:00etan, Musakolako Ikastolan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

■ ADINEKO GAIKOAK  
ETXEAN NOLA ZAINDU,  
III. ASTEA

Gaia: Bakardadea eta adineko pertsonak. Hizlaria: Juan Luis Guijarro, geriatra. San Andres parrokiari, Ibañez doktorea 1. behean, arratsaldeko 19:00etan.

**MUXIBAR PIZZERIA**  
79 11 25

**ADI!!!**

otsailak 9tik aurrera...  
**ORDUTEGI BERRIA**

arratsaldeko 6etatik aurrera  
**ZABALIK egunero!**

**Plus Ultra taberna**

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 79 20 57

**GORKA**

ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 77 13 78

**Hilbera kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 79 22 70



# 4 asteazkena

## ■ HITZALDIA: EMAKUMEAK

Gaia: *Emakumeak eta helburuak*. Hizlaria: Alazne Eizagirre. Familia eta Gizarte Heziketarako zentruan, arratsaldeko 16:00etan.

## ■ IPUIN KONTALARIA

AEDren etxean arratsaldeko 18:30etan.

## ■ HITZALDIA: HAMABI URTEKOEN HEZKUNTZA

Gaia: *12 urte: beste urrats bat ikastolan, ezagutu ezazu*. Ferixalekuko ikastolan, arratsaldeko 18:00etan. Euskarazko emanaldia. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

## ■ ADINEKO GAIKOAK ETXEAN NOLA ZAINDU, III. ASTEA

Gaia: *Adinekoen autonomia eta autoestima*. Hizlaria: Jose Ezkerra, Santa Agedako psikologoa. San Andres parrokian, Ibañez doktorea I. behea, arratsaldeko 19:00etan.

## ■ ERDI AROA AZTERGAI ESKOLA POLITEKNIKOAN

Gaia: *Erdi Aroa, esparru politiko eta lurralde desberdinen eraketa*. Hizlaria: Itziar Basterretxea. Eskola Politeknikoan, 19:00etan.

# 5 osteguna

## ■ MAHAI INGURUA: TRATAERA TXARRAK

Hizlariak: Nekane San Migel eta Nafarroako *Andrea* elkarteko partaide bat. Udaltxeko pleno aretoan, arratsaldeko 19:00etan. Emakume Sailak antolatuta

## ■ HITZALDIA: SEME-ALABEN JARRERAK

Gaia: *Nola bideratu seme-alaben jarrera arauak*. Hizlaria: Iñaki Olaskoaga. Erguin Herri Eskolan, arratsaldeko 18:00etan.

## ■ HITZALDIA: HAMABI URTEKOEN HEZKUNTZA

Gaia: *12 urte: beste urrats bat ikastolan, ezagutu ezazu*. Ferixalekuko ikastolan, arratsaldeko 18:00etan. Gaztelaniazko emanaldia. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

## ■ ADINEKO GAIKOAK ETXEAN NOLA ZAINDU III ASTEA

Gaia: *Adinekoen barne heziketa*. Hizlaria: *Bizitzan Gora* erakundeko bi partaide. San Andres parrokian, Ibañez doktorea, I. behea, arratsaldeko 19:00etan.

## ■ IKASTAROA: LEHEN LAGUNTZAK

Deba Garaiko kirol zerbitzuek *Lehen laguntzei* buruzko ikastaroa antolatuta dute. Oñatiko Zubikoa kiroldegian. 30 orduko ikastaroa izango da eta martxoaren 14an hasiko da. Izena emateko azken eguna martxoaren 8a izango da, kiroldegian.

## ■ 34ko KINTOEN BAZKARIA

Martxoaren 7an 1934an jaiotako kintoen bazkaria egingo da. Eguerdiko ordubatean meza, frantziskotarren elizan. 14:30etan bazkaria, Udalpe elkartean. Prezioa: 2.000 pezeta. Izen ematea Bengoa tabernan egin behar da, martxoaren 4a baino lehen.

## ■ BEDOÑATARREN BAZKARIA

Martxoaren 15ean Bedoñan jaiotakoek bazkaria izango dute Errastikua jatetxean. Auzoan jaiotako edonor joan daiteke bazkarira. Eguerdiko 12:00etan meza izango dute eta ondoren, bazkaria. Izen ematea Errastikua jatetxean egin behar da (79 10 13).

## ■ MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Besaide Mendizale Elkartek, *Hechora* mendi irteera antolatu du martxoaren 7 eta 8rako. Beharrezko baldintzak: federatuta

egotea, mendi eskiko materiala, pioleta eta kranpoiak edukitzea. Izen ematea martxoaren 2an eta 3an egin behar da Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara.

## ■ UR SOROSLE IKASTAROA

Deba Garaiko kirol zerbitzuek *Ur sorosle* ikastaroa antolatu dute apirilaren 24an hasteko. Ikastaroa Oñatiko Zubikoa kiroldegian egingo da eta 30 orduko iraupena izango du. Baldintza: lehen laguntza titulua izatea. Saioak ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan egingo dira. Prezioa: 20.000 pezeta. Izen ematea martxoaren 8a baino lehen egin behar da, Musakolako Kiroldegian.

## ■ MELODY SISTERS ANTZERKI TALDEA AMAIAN

Martxoaren 7an, Melody Sisters antzerki taldeak *Con lo puesto* izeneko antzezlan eskainiko du Amaia antzokian, gaueko 22:30etan. Sarrera: 600 pezeta.

## ■ MOTOZALE ELKARTEA

Arrasate Motozale elkarteko kide izan nahi duenak zabalik du izena emateko epea, elkarteak Musakolan duen etxean. Prezioa: 3.000 pta. Tel.: 79 68 31.

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo  
handiko arropa  
Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**UGARAN  
jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE • Tel.: 79 67 76




**Hello friends!**

**This is Michael Morris, an English teacher.**

*Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.*

*Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.*

**Connecting Basques and the world.**



**Euskara-Ingelesa  
Ingelesa-Euskara  
Hiztegia:**

**1.200 orri**

**80.000 hitz  
eta adiera**

**Eranskin  
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak  
eta bestelako  
ikasmateriala**

**Ingalaterrako  
nahiz EEBBetako  
ingelesa  
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin  
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,  
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + Egunkaria**




# Ezagutzen duzu Internet?



**Mikel Aretxaga**  
**Liburutegiko informatika**  
**begiralea**  
**(27 urte)**

Lanean asko erabiltzen dut. Egunero zazpi ordu egoten naiz lotuta. Oso baliagarria da beste liburutegiekin kontsultak egiteko eta kaleratutako liburu berriak ezagutzeko. Informatika gelara jende asko etorzen da erabiltzera.




**Fede Aranbarri**  
**Sortu Informatika**  
**(35 urte)**

Informazio teknikoia bilatzeko erabiltzen dugu. Internet kasu batzuetan oso baliagarria izan daiteke. Guk Internet zerbitzaria jartzen dugu. Etxeetan baino, enpresetan, ikastetxeetan eta horrelako tokitan eskatzen digute.



**Inaxio Irizar**  
**Eskola Politeknikoa**  
**(45 urte)**

Web eta Posta elektronikoa asko erabiltzen ditut. Unibertsitateak sarean sartuta gaude eta ez dugu ordaindu behar izaten lotura egiteko. Interneten edozein informazio guztiz gaurkotuta dago. Denbora aurreratzeko oso baliagarria da.



**Kike Gomez de Segura**  
**J.J.K. diseinu taldekoa**  
**(47 urte)**

Internet ezagutzen dut eta lanerako asko erabiltzen dugu. Dokumentuak, irudiak eta horrelako gauzak bidaltzeko eta jasotzeko primeran dator-kigu. Internet asmakizun ona izan da, eta gaur egungo egiturarekin, kostoa ez da hain handia.




**Amaia Muniategi**  
**Langilea**  
**(28 urte)**

Ezagutzen dut, baina ni barruan ez naiz sekula ibili. Informazioa bilatzeko tresna egokia ikusten dut.



**Roberto Hernandez**  
**Langilea**  
**(24 urte)**

Apur bat ezagutzen dut, baina ez dut asko erabiltzen. Lagun batek duenez, bere etxean erabili izan dut.



**Oscar Gonzalez**  
**Ikaslea**  
**(23 urte)**

Etxean daukat eta askotan erabiltzen dut. Informazioa bilatzeko primeran dator. Nik marketing ikasi dut, eta *Marketing-a Internet-en* gaiari buruz egiten dut tesina.



**Ines Barkero**  
**Ikaslea**  
**(19 urte)**

Zer den badakit. Ikastetxean daukat eta orain ari naiz nola erabiltzen den ikasten. Erabilgarria eta tresna interesgarria iruditzen zait.

**JUBAR**  
**ATEAK. S.L.®**

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE  
 Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17

**ORTO + LAGUN**  
 O R T O P E D I A

**Ondo ibili nahi duzu? Zuri laguntzeko gaude!**

- Lanerako eskalapoia (zuekoak)
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak
- Hanketarako plantilla bereziak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

**beatriz**

*oinetakoak eta poltsak*

Erdiko kale, 11  
 Tel.: 79 14 33  
 ARRASATE



USTEAK USTE

Elkarrizketarik ez udalbatzan

Joan den astelehenean Arrasateko Udalaren osoko bilkuran izan nintzen, aspaldiko partez. Egia esateko, kezkatuta irten nintzen: ez dago elkarrizketarik Arrasateko Udalbatza osatzen duten partiduen artean.

Bilkuran zehar, oposizioak bost alditan mahairatu zituen hainbat desadostasun eta galdera. Arrasateko Udala gobernatzen duen hirutariko gobernuak ez zien behin ere erantzunik eman. Entzun, bozketa egin eta hurrengo gaira.

Batzordeetan ez bada hitz egiten, osoko bilkuretan gutxienez, hitz egin beharko da eta eman beharreko azalpenak eman. Bestela itxurak egiten ariko dira, demokrazia gehiengoaren eta gutxiengoaren gauzatze mekanikoa besterik ez balitz bezala.

Horrezaz gain, ez ahaztu oposizioko zinegotziak ere Arrasateko herritarrek aukeratu dituztela eta horien botoemaileek besteen adina errespeto merezi dutela.

Sozialisten bozeramaileak iraindu zuenari ere beste horrenbeste esango nioke.

Joxe Aranzabal



Interneteko zaborrean

Luis Fernandez

Pornografia, Star Trek, Monica Lewinsky. Horrelako gauzak aurkituko ditu Internetera hurbiltzen den erabiltzaileak. Tontolapiko amerikano bat entretenitzeko adina badago... eta hemengo edozein intelektual entretenitzeko ere bai.

Zabor ugari dago hor sare informatiko horretan, eta erabiltzaile berri bati egin dakiokeen gomendiorik onena hau da, nire ustez: zabor horretan murgiltzea. Sartzea eta probatzea, ikustea eta nazkatzeta, aurki daitezkeen gaiza on eta txar guztiekin.

Bilatu eta aurkitutakoaren ganean erabaki gero: pornografia, euskal gaiak, albisteak, medikuntza, kardantxiloen elikadurari buruzko orriak, edozer. Ikusitakoak erakutsiko dio erabiltzaile berriari nondik nora abiatu; horrela ikasiko du zaborra eta internetatzen zaizkion gauzak desberdintzen, Internet berak

nahi duen horretarako baliabideak.

Web orrietako kolorekin liluratsen zaituzten bitartean, akaso deskubrituko duzu zure konexioak beste baliabide txiki bat daukala atxikia: posta elektronikoa. Ondo fijasatzen bazara, Interneten alde praktikoa horixe da. Akabo faxak, apunteen fotokopiak, atzerrian dabilzan lagunekin dauden komunikazio zailtasunak... Posta elektronikoa hedatu ahala, telefonoa bezain arrunt eta ezinbesteko bihurtuko zaigu. Urte gutxi barru geure buruari galdetuko diogu ea nola demontre moldatzen ginen hori beza-

Erabiltzaile berriari egin dakiokeen gomendiorik onena, hau da: zabor horretan murgiltzea

lako trasto bat gabe.

Internetera konektatu ondoren, hasieran nabigazio zoro samar batean ibiliko zara erabiltzaile nobatoek egin ohi duten -eta egin behar duten- moduan. Baina gero, behar bada, interes partikularragoetara mugatuko zara. Eta, akaso, zirrarak jotzen badizu, zu zeu ere partehartzaile bihurtuko zara, zuk zeuk ere josiko dituzu hariren batzuk sare erraldoi horretan. Hori da Interneten koxka: telebista kate zikikoa bezain kutxa tontoa izan liteke Interneten pantaila, baina zuk zeuk ere bertan parte hartzeko aukera eskaintzen du. Zu ere editore bihurtu zaitezke.

Horretarako, berriz ere, biderik praktikoa posta elektronikoa da. Posta zerrendak daude horretarako -eta haiekin antza apur bat daukaten newsgroup edo berri-taldekak), nere iritziz Interneteko alorrik interesgarriena. Komunikazio, eztabaida eta iritzi trukatetarako asmatu den gailu simple hau ikaragarri eroso eta erabilgarria bilakatzen zaizu, zuku pixka bat ateratzen ikasten duzanean.

Trasto madarikatu honetan lehen urratsak ematen ari da euskara. Badaude jada internauta erabiltzaile euskaldun mordo bat, baina horrek ez du piztu oraindik halako "Interneteko euskal komunitaterik". Baina, tira, erabiltzaile horiek partehartzaile bihurtu ahala, hori ere iritsiko da.

Luis Fernandez, kazetaria

PEUGEOT Salmenta eta zerbitzua IBABE GARAJEA MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

HIES EKIMENA Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara. Tel.: 79 26 99



astea bi hitzetan

■ **Produkzio Zuzendari-  
tzako Master programaren  
VII. promozioa Otoloran**

Joan den ostiralean diploma banaketa egin zen Otolora jauregian, amaiera emanaz horrela hamalau hilabete iraun duen Produkzio Zuzendaritzako Masterrari. Master honetan Euskal Herritik etorritako 18 teknikarik hartu dute parte; denak ardura handiko languneetan dihardute beren enpresetan.

■ **Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzalearen batzarra**

Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzaleak bilera egin zuen joan den astean.

Hamar izeneko zerrenda osatu zuten, hurrengo Uri Buru Batzarra osatzeko. Aukeratu, berriz, datorren batzarrean egingo da, mar-

txoaren 12an. Orduan, Uri Buru Batzar berriko kideek lehendakari, idazkari eta diruzain berriak izendatuko dituzte. Gauregungo zuzendaritza honako burukide hauek osatzen dute: Agustín Ugarte lehendakaria, Marisa Larrañaga lehendakarioordea, Luis Mari Apraiz idazkaria eta Rafael Marañón diruzaina.

■ **AEDk euskararen erabilera neurtu du publizitatean**

Neurketaren arabera, Arrasateko merkatariek publizitate elebidun gehiago erabili zuten iaz, aurreko urteetan baino. Euskarazko iragarriak ere aurreko urteetan baino gehiago izan ziren. Hala ere, kopurua oso murrizta da: %2,97 bakarrik. AEDk balorazio baikorra

egin du, herrian euskararekiko sentiberatasun handiago dagoelako. Neurketaren emaitzak, Sebero Altube plazan jarriko dira ikusgai, astebukaera honetan.

■ **Caja Laboralek 2.200 milioi pta inbertitu du informatikan**

Euskadiko Kutxak berriztu egin du sistema informatikoa. Bezeroari zerbitzu hobea eta berriagoa eskaintze aldera, 2.273 milioi gastatu ditu sare informatikoaren berrikuntzan. Caja Laboralen bezeroak nahiago du autozerbitzua: lautik ia hiruk kutxazain automatikoak erabiltzen ditu. Hau dela eta, Euskadiko Kutxak 115 kutxazain berri ezarri ditu. Horietako 15etan nahikoa da pantailan ikutzea, makinarekin lan egiteko.

OHIKO OSOKO BILKURA EGIN ZEN ASTELEHENEAN

Muxibarreko zabortegia publikora zabaltzea, aparkalekuko zerbitzuaren eta ostalaritzaren udal araudiak onartu ziren osoko bilkuran. Caja Laboralek jasandako eraso ere gaitzetsi zuten alderdi politikoez, HBk izan ezik. Opozizioak osoko bilkuren lan egiteko era salatu zuen, azkenengoetan ez da eta, eztabaidarik izan.



“Euskal kultura larri dabilela? Seguru baietz. Behintzat nik ez dut orain dela bost urtetako balantzea hobe dezakeen partidarik antzematen. Eta aurrera ez egiteak atzerapausoa dakarrela erakutsi ziguten aspaldi. Txarrena, dena den, ez datza balantzeko kontzeptu materialen balorazio ezkorrean. Askozaz okerragoa da, batere zalantzarik gabe, atzerapauso horren zioa aztertze gaitasunik eza. Eta hori, zoritxarrez, ez da komentario merke bat, errealitatearen konstatazio zuzen eta negargarria baizik. Kezkatuta egoteko arrazoiak badira, beraz”.


**JOXEMARI VELEZ DE MENDIZABAL**

Jakin, 1997ko azaroa-abendua

“Josu Eguzkiza Barrenetxeak 21 urte ditu eta aktore izan nahi du. Bizitasunez beteriko mutila da. Arrasaten jaio zen eta orain hiru urte aurkitu zuen finoa, kanutoak, gorrillak eta mirariak nonahi dituen hiria (Sevilla).(...) ‘Inor baino euskaldunago sentitzen naiz; nire kultura nirekin doa, baina ez du nire bizitza aldatzen. Harro nago euskaldun izateaz, nahiz eta batzuetan pena eta guzti ematen didan. (...) Miguel Angel Blancoren aldeko kale agerraldira joan nintzen, biziaren alde nagoelako. Baina ez dut haiek bezala pentsatzen. Esaten diet ‘txo, Miguel Angelena putakeria galanta duk... Putaseme hutsak dituk. Orain etor hadi nirekin Verari esatera bera ere beste horrenbeste badela’. Hor dago desberdintasuna”.

**EL CORREO**  
1998ko otsailak 8

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62



**Pavimentos AGR**

**AROSZTEGIA**

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:


Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20




# Euskara gora doa... baina goia urrun dago oraindik.

## Euskararen erabilera 1997an

### Postontzietan jasotako publizitatean



### Egunkarien herri kroniketan



# Gura duguna, informazioa euskalduna!



# laz lau HIES kasu antzeman ziren Arrasaten

HIESa agertu zenetik Euskal Autonomia Erkidegoan, 38 kasu antzeman dira Arrasaten. Eusko Jaurlaritzaren HIESari Aurre Hartzeko eta Kontrolatzeko Egitasmoak adierazi duenez, batez beste urtean hiruzpalau kasu berri agertzen dira. 1997an, hain zuzen, lau kasu antzeman ziren Arrasaten.

Arrasaten antzemandako kasu guztien %76 gizonak ziren eta %24 emakumeak. Batez beste 28 urte zituzten gaisotasuna antzeman zitzaizaien.

Gaisoen %82k aitortu zuten, HIESa harrapatu zuten, drogak hartzen ari zirela, beste batzuek erabilitako xiringak erabili zituztelako. %8k esan zuten harrapatu zutela sexu harremanak izan zituztelako inolako babesik barik, kondoiak erabili barik, alegia. Beste %5ek bestelako transmisio bide batzuk seinatu zituzten. Gainerako %5en kasuetan ez dago jakiterik zergatik harrapatu zuten HIESa.

1995etik hona, bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai Espainian HIESa kasuak jaisten ari dira. Arrasaten ez dago ezer seguru esaterik, kasuak oso gutxi direlako.

Arrasaten HIES Ekimena taldea orain zortzi urte sortu zen, HIESa zuten guztiei lagun-



du ahal izateko. Sortzaileetako gehienak hil egin dira. Domi Korta HIES Ekimena elkarte-kideak esan digunez, euren lana zeharo aldatu da urte hauetan: lehen ez zegoenez bizi itxaropenik, ahalik eta hobetoen bizitzen eta ahalik eta hobetoen hiltzen prestatzen zituzten gaisoak. Gaur egun berriz, bizi itxaropena askoz

ere handiagoa da. Horregatik, gaisotasunarekin bizitzen erakusten diete.

HIES Ekimena taldeak Deba Bailaran egiten du lan: laguntza ematen die seropositiboek, hitzaldiak ematen dituzko eskoletan eta Euskal Herriko beste herri batzuetara ere joaten da, ahal duen guztian laguntzera.

## Pedrotxo Martutenera eramatea eskatu du Udalak

Arrasateko Udalak osoko bilkura berezia egin zuen astelehenean, Pedro Guridi preso arrasatearraren osasuna dela eta, herritar batzuek eginda-ko eskaria aztertzeko.

Azkenean onartu egin zuen herritarren mozioa. Honen arabera, Arrasateko Udalak jessioak egingo ditu Pedro Guridik bere uste oneko medikua aukeratu ahal izan dezan. Eskatu egingo du, halaber, Pedro Guridi Martutenera espetxera ekartzea, egin behar zaion ebakuntza Donostian bertan egin dakion. Azkenik, Udalak Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordera eramango du eskaera. Gaiaren jarraipena, Udaleko Bozerra-maileen batzordeak egingo du.

EAJk, EAK, HBk eta EBK mozioaren alde bozkatu zuten. PSOEk eta PPK, aldiz, kontra.

Pedro Guridik 18 urte daromatza espetxean, 90 urteko zigorrarekin. Zigorraren hiru laurdenak beteak ditu, baina oraindik Murtziako espetxean segitzen du. Urte hauetan bere osasunak txarrera egin du. Gaur egun hernia discal dauka eta dituen minak pastillak hartuz gaintu behar izaten ditu. Medikuen arabera, irtenbiderik egokiena ebakuntza egitea izango litzateke.

### ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 79 48 77 • ARRASATE



### ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 79 22 55 79 14 25



## Fagor Industrial eta Melia hotelak

Fagor Industrial kooperatibak hitzarmen bat sinatu du Sol Melia hotel sarearekin, kate honek munduan zehar dituen 227 hotelak sukalde industrialez eta bestelako tresneriaz hornitzeko. Fagor Industrialen kompetenziako beste hiru enpresa ere sartu dira hitzarmen horretan.

### Jaiotzak

- Julen Nafarrate Bueno. Otsailaren 17an.
- Sara Izkue Escobales. 19an.
- Nerea Revenga Mateos. 19an.
- Maialen Gallardo Saiz. 22an.
- Ainhoa Sanabria Armendia. 23an.

### Hildakoak


- Felipe Zuazubiskar Larrañaga. 77 urte. Otsailaren 19an.
- Jose Agirreurreta Ormaetxea. 80 urte. 22an.

# Eibar-Gasteiz autobidearen lanak aurten hasiko dira

Nahiz eta horretarako behar duen dirua ez eduki oraindik, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki du aurten bertan ekiten Eibar eta Gasteiz lotuko dituen autobidea egiteko lanei. Erabaki horren arabera, 2000. urterako Eibar eta Bergara lotzen dituen tartea eginda egongo litzateke.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ordago galanta jo du. Ez du atzerapen gehiagorik nahi eta aurten bertan ekingo die Eibar eta Gasteiz lotuko dituen autobidea egiteko lehen lanei. Erabaki duenez, azaro honetan hasiko dira lanak Bergaran eta, poliki-poliki, Soraluzerantz joango dira, Eibarre iritsi arte. Diputazioko arduradunen arabera, 2000. urterako bukatuak beharko luke Eibar eta Bergara artean duden zortzi kilometroek.

Dena dela, oraindik ez dago garbi lan itzel horiek egiteko dirua nondik aterako den. Izan ere, Eibar-Gasteiz autobidea egiteko 100.000 milioi pezeta beharko dira eta Gipuz-



Lanak Bergaran hasiko dira, azaro inguruan.

koako Foru Aldundiak 18.000 milioi baino ez ditu. Kontuan izanda orain egin nahi den tarteren kostoa 24.000 milioi-koa izango dela, horretarako ere ez dago dirurik.

Autobidearen lanak

ordaintzen laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidesaria kobratzeko asmoa du: 10 bat pezeta kilometroko. Horrela, Eibartik Gasteizera joatea 440 pezeta kostatuko litzateke.

# Adecco

## LAN ENPRESARIK HANDIENA

Baimen administratibo zenb. 79/0002/94  
Enplegu zuzendaritza orokorra.

Ferrerias kalea, 2  
20500 Arrasate  
(Gipuzkoa)  
Tel.: 79 57 00  
Fax: 79 20 17

*Elkar zaituz ADECCOrekin eta liderrak eskaintzen dituen abantailak gozatu ahal izango dituzu.*







Mahai inguruak, auto ilarak, hitzaldiak eta kale agerraldiak egingo dituzte sindikatuek.

## Lan orduen murrizketaren aldeko mobilizazioak

Arrasateko ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK-CUIS, Ezker Sindikalá eta Lankideak taldeak enplegua sustatzeko kanpaina aurkeztu dute gaur egindako prentsaurrekoan. Kanpaina ELAk eta LABek joan den uztaillean Lan Harremanen Kontseiluan aurkeztu zuten proposamenaren oinarritzen da. Orduan, bi sindikatu abertzaleok lan orduen murrizketa aldarrikatu zuten Confebask-ekin egindako bileretan: 35 orduko lanaldiekin hasi 32 ordura iritsi arte. Lan orduak murrizteaz gain, ordutegitik kanpoko orduen desagerpena eta ordezkatzeko kontratuen sustapena eskatu zuten. Ordezkatzeko kontratuei dagokienez,

60 urterekin jubilatzen direnak 65 urterekin jubilatzen direnen baldintza berdinez izatea eskatu zuten. Confebask-ek aintzat hartu zituen azkenengo bi eskaerak, baina proposamenaren ardatza, hau da, lan orduen murrizketa, ez zuen onartu. Confebask-ek lehiakortasunaren kontra doala uste du. Lehiakortasunik gabe, ez dago enplegua sortzerik Confebasken arabera. Beraz, baztertu egin zuten sindikatuen proposamena.

Sindikatuak, enplegua sortzeko bidea lan orduen murrizketan dagoela uste dute. Horregatik, elkarrekin egindako kanpainan indar sozialak batu nahi dituzte. Hemendik Maiatza

Lehenena arte, mobilizazioak antolatuko dituzte, lan orduen murrizketa lortzeko. Nagusienak honako hauek dira: martxoaren 5ean ELAk eta LABeko ordezkariak Gasteizen mitina eta ondoren kale bilera egingo dute Eusko Legebiltzararen aurrean. Martxoaren 28rako berriz, kale agerraldia egiteko deialdia egin dute. Apirilaren 23an ordubeteko lanuzteak egingo dira. Bukatzeko, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Deba Garaian, hala nola, mahai inguruak, auto ilarak, hitzaldiak ikastetxeetan, mozio aurkezpenak udalen osoko bilkuretan eta kale agerraldiak.

## MCCk Automodulos enpresa sortu du

Mondragon Kooperatiba Korporazioak Automodulos SA enpresa berria eratu du. Enpresa hau beste hiru konpainiarekin batera sortu du: MCCk kapitalaren %40 izango du; Gestamp taldeak %40; eta Gasteizko Gamesak %20. Automodulos SA. enpresak Bizkaian izango du egoitza, Zamudioko Teknologia Parkean, eta hasi, 100 milioi pta-ko kapital sozialarekin hasiko da. Automodulos enpresak autoentzako ardatzak egingo ditu, ejeak. Jon Alberro pasaiatarra izango da enpresa berriko zuzendari orokorra.

## Emakume bat hilda, auto istripu batean

Gasteizko matrikula zuen furgoneta batek C.O.M., 79 urteko emakume arrasatearra harrapatu zuen joan den asteazkenean, iluntzeko 20:15etan. Gurutze Gorriak Arrasateko Eskualde Ospitalera eraman zuen, baina hantxe hil zen.

Gorpua Zumarragako ospitalera eraman zuten, autopisia egitera.

### UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00  
Fax: 793412



KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis  
Tel.: 77 09 92 / Faxa: 79 78 14  
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea  
Tel.: 78 21 82  
OÑATI





**B**udistak, pailazok, untxiak, zahar klonikoak, txinatarrak, piratak... Mozorro ikusgarriak eta betikoak nahasturik Haratuzteetako azken gauean. Giro ona eta jendea animatuta. Gripe izurriteak ere ez zuen atzera eragin zenbaiten festa gogoia. Gizonak, puzkarriak bularretan eta takoi luzeko zapatak zituztela irten ziren kalera. Emakumeak, sabel itzelekin eta lau eguneko bizarrekin. Mundua alderantziz! Dirudienez, Arrasateko festak oihartzun handia du herritik kanpo, astearte gau zoroan Espainia aldeko pertsonaia famatua izan zen eta, alde zaharreko tabernetan txikiteoan.

Haratuzteetako sardinak gaueko 11:30ak aldera egin zuen bere ibilibidea. Frak beltzez jantzitako gizonak, herriko plazara eraman eta su eman zioten, herritar ugariren begiradapean. Instant batean hautsa besterik ez zen sardina koitadua. Ostegunean hasi eta astearte arteko denbora majikoa bukatu da eta erretratoen kontsolamendua besterik ez zaigu geratzen. Orain Garizumari aurre egin behar, eta datorren urtera arte!



# Mozorro jaia










# SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Inaki Muñoz  
Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala



## AEROBIC

Goizez eta arratsaldez  
Ikasiak eta hasi berriak

## KARATE

- Haurrak (5 eta 9 urte)
- Infantilak (10 eta 13 urte)
- Helduak

## SAUNA

## GIMNASTIKA

3.adineko mantenimendua.  
Goizez eta arratsaldez

## MASAJEA

- Osteopatia
- Kirol masajea
- Drenaje linfatikoa
- Kiromasajea
- Ziatikak

## SOLARIUM

## MUSKULAZIOA

- Kulturismoa
- Kirol prestakuntza
- Fitness
- Gaiberritzea (errehabilitazioa)

## SQUASH



# Lan bila Arrasaten


Hiru langabetik bi, emakumeak dira, 20 eta 35 urte artekoak

**E**makume gaztea—20 eta 35 urte bitartekoa—eta eskola ziurtagiria duena. Horixe da Arrasateko batez besteko langabea, INEMek emandako azken berrien arabera. Egoera ez da larregi aldatu beste urte batzuekin alderatuz gero: lehen bezala, emakume langabeak askoz ere gehiago dira gaur gizonak baino. Gaur egun, adibidez, Arrasaten 700 langabe daude izena emanda INEMen. Hirutik bi emakumeak dira. Baina hau ez da harriztekoa, emakumeen lan egoera antzerakoa baita herri gehienetan.

## ARRASATEN LANGABEZIA %6KOA DA

Arrasatek 25.057 bizilagun ditu. Horietatik 10.956 lan egiten dutenak. 1997ko hirugarren hiruhilabetearen %6,7ko langabezia jaso zen. Gaur egun, beherantz egin du eta %5 inguruan ibiliko da. Lana egiten dutenak askotxo direla kontuan izanda, Arrasatek nahiko leku ona du langabeziaren sailkapenean. Sestaok, esate baterako, %23ko langabezia du. Bergara, Leintz Gatzaga, Elorrio eta Eskoriatza ere %7an dabilta, Arrasatearen gainetik. Aretxabaleta, Antzuola, Aramaio eta Oñati, ostera, %4an, gu baino hobeto. Beste muturrean Balaia dago, langabeziarik barik.

Langabeziak behera egin du azken urteotan Deba Garaian. Beherakada ez da ikusgarria izan, baina bai igar-



Arrasaten Deba Garaiko INEMen bulegoa, Langai zerbitzuaren lau bulego eta hiru aldikako lan enpresa daude.

tzeko modukoa. Begoña Montoya, Arrasateko INEMeko zuzendariak gogoratzen duenez, “orain hiru urte, bulego honetan lanean hasi nintzenean, 3.000 langabe inguru zeuden euskaldea honetan. Gaur egun, berriz, 2.000 inguru izango dira”. Arrasaten

bertan, 1996an baino 260 langabe gutxiago dago.

Gemma Otadui, Laborman aldikako lan enpresako teknikaria baikorragoa da. Haren ustez, Arrasaten ez dago langabeziarik: “Askotan ezin izaten dugu herrian langilerik aurkitu eta beste herri

batzuetara jo behar izaten dugu, datozkigun eskariak bete ahal izateko”.

## IRTENBIDE ONENAK DITUZTEN LANBIDEAK

Lanbide Heziketa ikasi dutenek, erraz aurki dezakete lana, metalaren alorreko lantegie-



tan. "Lanbide Heziketa boladan dago", esaten du Gemma Otadui, "Fagorrek tira egiten du autogintzan ari diren enpresen gurditik eta zenbait lan eskatzen dituenen, lan horiek egingo dituzten langileak kualifikatuak izatea eskatzen die azpikontratatzeko dituen enpresei. Baina Arrasaten ez dago horrelako langilerik. Kanpotik ekarri behar izaten ditugu".

Makina-lanabes eremuan gaitutako langileak eskatzen dira gehien bat, baina fresatzaileak eta tornulariek ere aukera asko izaten dituzte.

Hauetako gutxi geratzen dira Arrasaten.

INEMen aldi baterako formazio kontratuak egiten dira batik bat, enpresek prestatu gabeko gazteei egiten dizkieten *zabor kontratuak*, alegia, asko jota 55.000 pta.ira irits daitezkeenak. Eusko Jaurlaritzako Herri Baltzuak egin dituen ikerlanen arabera, Deba Garaian profesional hauek dira lana lortzeko aukera handienak dituztenak: industria galdaratun espezialistak, zinteko begiraleak eta igeltse-roak. Arazo gehien dituztenak, berriz, kamareroak, saltzaileak

eta, batez ere, administratiboak eta administrazio laguntzaileak.

Arrasateko Udalaren Langai zerbitzuak ospitale laguntzaileei eta adinekoak zaintzeko laguntzaileei batez ere aurkitu die lana.

## LIZARRA ELKARTEA LANGABEZIAREN AURKA

Arrasateko Lizarra elkarteak egitasmo berezi bati ekin zion urtarrilean herriko gazte langabeak lan esparruan sartzeko. Egitasmo horren bidez, gazteek lanbide bat ikasi eta

## Igone Ezquibel

**Igone publizitate espezialista da eta hogeita sei urte ditu. Aldikako lan batzuk egin izan ditu, baina hiru urte daramatza lan barik.**



— **Langabeziatik kobratzen duzu?**

— Ez dut dirurik jasotzen. Gurasoen etxean nago.

— **Nora bidali izan duzu zure curriculum?**

— INEMera, Langaira eta Adeccora. Herriko enpresei ere bidali izan diet.

— **Posible ikusten duzu zuk ikasitakoaren arloan lan egitea?**

— Oso zaila da. Edozein enpresak hiruzpalau urteko esperientzia eskatzen du, baina lehen aukerarik ematen ez badizute, ezin eskarmenturik izan.

— **Egin duzu ikastarorik?**


— Orain merkataria prestatzeko ikastarora joaten naiz. Ondo dago horrelako ikastaroak egitea, gauza berriak ikasteaz gain, enpresek ondo prestatutako jendea eskatzen dutelako. Dena den, ikastaroan 140 ordu sartuko ditugu praktika lanetan eta horiek ez dizkigute ordainduko.

— **Nola ikusten duzu autoenplegua?**

— Oso ideia polita da, baina dirurik ez baduzu... Nik ezin dut diru gehiago eskatu etxean.

**Lanbide Heziketa ikasi dutenek, erraz aurki dezakete lana metalaren alorreko lantegietan. Makina-lanabes eremuan gaitutako langileak eskatzen dira gehien bat, baina fresatzaileak eta tornulariek ere aukera asko izaten dituzte. Hauetako gutxi geratzen dira Arrasaten.**





lanean has daitezke. Deba Garaiko Mankomunitatearen laguntza du eta dagoeneko hamabost gazte jarri ditu Alecopen lanbide bat ikasten eta prestatzen. Egitasmoaren ardatza, gazteei lanbide heziketa ematea da, bihar-etzi aukera izan dezaten edozein lagune eskuratzeko.

Lizarrako kideen esanetan, "oraindik ezin dugu ondorioz atera esperientzia honetatik, baina, gure harridurarako, zera aurkitu dugu, Arrasaten guk uste baino gazte gutxiago dagoela langabezian. Izkutuko lan asko dago".

Sindikatuak ere orain dela gutxi aurkeztu dute enpleguaren aldeko kanpaina. ELAK eta LABek, langabeziaren arazotari irtenbidea bilatu nahian, lanorduen murrizketaren alde egin dute. Lanorduak 35 izatea proposatu dute Lan Harremanen Kontseiluan, baina Confedebak ez bide du neurria onartzen. Negoziazioaren bidez ezer gutxi lor dezakete eta, beren proposamenaren aldeko kanpaina antolatuta dute hemendik eta Maiatzaren Lehenera arte. ■

Marian Porcel

## Tere Egidazu

**Terek lan desberdinak egin zituen, orain dela bi urte langabezian geratu zen arte. 45 urte ditu eta ezkondu ta dago, hiru seme-ekin.**

— **Langabeziatik kobratzen duzu?**

— Bai. Gutxieneko soldata: 78.000 pta inguru. Horrek ez du ezertarako ematen, baina beste askok hori ere ez dute.

— **Joaten zara ikastaroetara?**

— Bai, askotara. Behin tornu baten zenbaki kontrola ikasi nuen; ikasgelako emakume bakarria izan nintzen. Ikastaroaren ondoren gizon guztiak, bi izan ezik, lanean hasi ziren.

— **Emakume izateak badu zerikusirik zure egoerarekin?**

— Arrasaten emakumeak gara lan barik gaudenak. Oso gizon gutxi dago langabezian. Makina-lanabes alorreko lanpostu teknikoak eskaintzen dira. Horietarako gizonak bakarrik kontratatzen dira.

— **Gazteei baino zailagoa egiten zaizu lana bilatzea?**

— Nik eskarmentu handia dut, baina haien gusturako urte asko ere bai. Igone, berriz, gaztea da, baina ez du esperientziarik. Kasu bietan, irtenbidea zaila da.







## Golak nagusi

**B**igarren aldiko lehen jardunaldian golak izan dira nagusi. Talde batzuek burkariaren atea zulatzen trebezia handia erakutsi dute. Aldi honetan gero eta maila handiago nabariko da, eta horrek, jakina, bizitasuna emango dio txapelketari. Orain arte talde goleatzaileena Irati STS izan da.

## Laburrak

### ■ NEURKETA ATZERATUTA

Totem eta Txeyenex taldeen arteko partida ez zen jokatu larunbatean. Arrazoia hauxe izan zen: Txeyenex taldean jokalaria asko zeuden gaisorik eta min hartuta eta ezin izan

zuten bost lagun elkartu partida jokatzeko. Antolatzaileek, beraz, atzeratzea erabaki zuten.

### ■ PARTIDA INTERESGARRIAK

Hemendik aurrera partida guztiek euren xarma izango

dute. Zaldibarren. Bigarren jardunaldian jokatuko diren hamasei partidetatik batzuk azpimarratuko ditugu. Larunbatean KKjaurik eta Los Herediak jokatuko dute goizeko 11:00etan. Naranja Mekanikak Nuevo tabernaren kontra

jokatu behar duena, eta era berean, DA Iriztu eta Irati STS taldeen artekoak ere ikusteko modukoak izango dira. Igan-dean, 09:00etan Branka Taberna eta Txeyenex izango dira lehian. 13:00etan, berriz, Sokoakoak eta Jotakabau.

**GASTON Y DANIELA**  
Tapizeria • Moketak • Alfobrak

**Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoentzako altzari sail berria topatuko duzu!**

**Zatoz estreinatu dugun erakusketa berria ezagutzera!**

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

**LAKET**

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 79 11 72

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 79 01 82



## Sailkapenak

### A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Naranja Mekanika	1	1	0	0	10	3	2
Aurrera Bolie	1	1	0	0	6	3	2
Sokoakoak	1	1	0	0	5	3	2
Jotakabau	1	0	1	0	2	2	1
Zotz	1	0	1	0	2	2	1
Insert Coin	1	0	0	1	3	5	0
Nuevo Taberna	1	0	0	1	3	6	0
Ke Oxtias	1	0	0	1	3	10	0

### B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Jako Al Rey	1	1	0	0	7	1	2
Argi Ibili	1	1	0	0	10	5	2
AC Surcos	1	1	0	0	4	3	2
Betrayer	1	0	1	0	4	4	1
Pepelus	1	0	1	0	4	4	1
Koka Juniors	1	0	0	1	3	4	0
Lautherbrunen	1	0	0	1	5	10	0
Tamagotxi	1	0	0	1	1	7	0

### D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Irati STS	1	1	0	0	16	3	2
Garaje Oscar	1	1	0	0	6	2	2
DA Iriztu	1	1	0	0	5	2	2
Fraguel Gol	1	1	0	0	5	2	2
AT Celaya	1	0	0	1	2	5	0
Los Heredia	1	0	0	1	2	5	0
Jey Holigans	1	0	0	1	2	6	0
KKjauri	1	0	0	1	3	16	0

### E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Aldibi	1	1	0	0	9	4	2
Estrella taberna	1	1	0	0	9	6	2
Lorategi	1	1	0	0	6	4	2
Leya	1	0	0	1	4	6	0
DKB	1	0	0	1	6	9	0
Branka Taberna	1	0	0	1	4	9	0
Txeyenex	0	0	0	0	0	0	0
Totem	0	0	0	0	0	0	0

## Emaitzak

### A taldea

Naranja Mek. 10 - Ke Oxtias 3  
Sokoakoak 5 - Insert Coin 3  
Nuevo taberna 3 - Aurrera Bolie 6  
Jotakabau 2 - Zotz 2

### B taldea

Argi Ibili 10 - Lautherbrunen 5  
Koka Juniors 3 - AC Surcos 4  
Betrayer 4 - Pepelus 4  
Tamagotxi 1 - Jako Al Rey 7

### D taldea

Fraguel Gol 5 - AT Celaya 2  
DA Iriztu 5 - Los Heredia 2  
Jey Holigans 2 - Garaje Oscar 6  
Irati STS 16 - KKjauri 3

### E taldea

Estrella Taberna 9 - DKB 6  
Branka taberna 4 - Aldibi 9  
Lorategi 6 - Leya 4

## Hurrengo partidak

### Otsailak 28, Larunbata


#### Zaldibar

8:50 Koka Junior - Tamagotxi  
10:00 Jako Al Rey - AC Surcos  
11:00 Kkjauri - Los Heredia  
12:00 Totem - Aldibi  
13:00 Naranja Mekanika - Nuevo taberna  
14:00 Leya - DKB  
15:00 Pepelus - Lautherbrunen  
16:00 Fraguel Gol - Jey Holigans  
17:00 Estrella Taberna - Lorategi  
18:00 Aurrera Bolie - Ke Ostias  
19:00 DA Iriztu - Irati STS

### Martxoak 1, Igandea

#### Zaldibar

8.50 Branka Taberna - Txeyenex  
10:00 Garaje Oscar - AT Celaya  
11:00 Zotz - Insert Coin  
12:00 Argi Ibili - Betrayer  
13:00 Sokoakoka - Jotakabau




## LUZATU GIHARRAK, BADAEPADA...!

Kirola egin aurretik, ondo berotu behar dira giharrak, batez ere ondoren etor daitezkeen lesioak saihesteko. Argazkikoak hori jakin badaki. Ea bada, beste batzuek ere aholkuari kasu egiten diozuen!

# Uribe Auzoa Txapelketa asteburuan hasiko da

Uribe Auzoa Futbito Txapelketa larunbatean hasiko da. Aurten 48 taldek eman dute izena, eta partidak Iturripen jokatuko dira, goizez zein arratsaldez. Txapelketak hainbat aldi izango ditu. Lehenengoa ligatxo erara jokatuko da. Hortik aurrera, kanporaketak.

Lehen aldirako hamabi taldez osatutako lau multzo egin dira. Multzo bakoitzetik lau lehenek hurrengora pasatzeko aukera izango dute. Uribe Auzoa txapelketak San Joanak arte iraun-



go du. Arauei dagokienez, oinarrian Zaldibar Txapelketa berak izango dira. Aldaketa bakarra, txapelketa honetan bost jokalarik eta atezainak jokatuko

beharrean, lau jokalarik eta atezainak jokatuko dutela.

Asteburu honetatik aurrera, bi futbito txapelketa izango dira Arrasaten. Kirol honen zaleek Zaldibarren eta Iturripeko kantxa bietan ikusi ahal izango dute makina bat partida.



Arrasate Kirolak Errugbi taldekoa

## BEÑAT OLALDE

**“Arrasateko goim mailako taldean jokatzera gustatuko litzaidake”**

— **Noiztik zabilta errugbian?**

— Aurten hasi naiz. Hamahiru urte ditut eta haur taldean nabil.

— **Kirol indartsuegia dela diote?**

— Hori ezagutzen ez dutenek pentsatzen dute. Kirol noblea da. Zartada batzuk hartzen dira, baina beste kirol batzuetan bezala. Gainera, gauzak ondo eginez gero, ez duzu zertan zartada handirik hartu behar.

— **Ze postutan jokatzeko duzu?**

— Pilierra naiz. Nire tokian ona izateko, azkartasuna behar da, baloia kentzeko ausardia eta touchetan trebetasuna.

— **Zer moduzkoa da entrenatzailea?**

— Ni gustura nago, nahiz eta batzuetan entrenamenduak gogorrak izan. Astean bi bider etortzen gara. Entrenamenduetan ariketa fisikoak egin eta baloiarekin ibiltzen gara.

— **Errugbiaren arauak ikastea zaila da?**


— Ez, entrenatzaileari kasu egiten badiozu, arauak laster ikasten dira. Hasieran, dena dela, zailagoa ematen du.

— **Gustuko beste kirolik?**

— Futbola, baina jokatzeko nahiago dut errugbia.




## ESKUBALOIA Bigarren maila gero eta urrutiago




Arrasate Eskubaloi Taldeak gero eta aukera gutxiago du bigarren mailari eusteko. Larunbatean Egiaren kontra galtzea atzerapauso garrantzitsua izan zen taldearentzat. Azken boladan, gainera, nahi baino lesionatu gehiago dute eta hori igartzen ari dira. Arrasatearrek partida bakarra irabazi dute gaurdaino eta taldean dagoen adorea ikusita, hurrengo garaipeña ez da gertu ikusten. Datorren larunbatean Euskal Herriko Unibertsitatea izango dute aurka, Donostian. Neurketa arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Herro entrenatzaileak ez du pronostikorik eman nahi. Jokalarien esku dago puntuekin itzultzea eta beraiengan konfiantza duenez, onena ematen saiatzeko eskatuko diela esan digu.

## ERRUGBIA Azken urreko partida




Arrasate Kirolak Errugbi Taldeak asteburu bateko atsedena izan ondoren, larunbatean Durango izango du aurkari. Arrasatearrek ez dute beldurrik arratsaldeko 16:00etan hasiko den norgehiagokaren aurrean. Hala ere, Patxi Goro-sabelen mutilek badakite partida gogorra izango dela eta eten barik jokatu beharko dutela. Denboraldiko azken aurreko jardunaldia izango da Durangoren kontrakoa. Azkena Garagartzan jokatu dute, datorren larunbatean, Euskal Herriko Unibertsitatea taldearen kontra.

## SASKIBALOIA Padura aurkari



Arrasate Saskibaloia Taldea Bizkaiko Paduraren kontra neurtuko ditu indarrak larunbatean, arratsaldeko 18:00etan, Iturripen. Padura taldea azken aurrekoa da sailkapen nagusian. Arrasate, berriz, azkena. Itxuraz, antzeko ezaugarriak dituzten bi talde izango dira lehian. Arrasatearrek bigarren aldian ari dira jokatzeko eta eurentzat garaipena lortzea pozgarria bezain garrantzitsua da. Izan ere, bigarren maila baitago jokoan. Roberto Azkarate entrenatzaileak gertu izango ditu jokalari guztiak.

## FUTBOLA Puntu bila



Preferente Mailako Mondrak bi puntu garrantzitsu galdu zituen igandean. Mutriku irabazteko moduko taldea zen, baina Jesus Mari Barrutiabengoren mutilek husnako berdinketarekin konformatu behar izan zuten.

Larunbatean, arratsaldeko 15:45etan, Rotetaren kontra jokatu dute. Lehen itzulian Arrasate 2 eta 1 nagusitu zen. Larunbatean ere beste hiru puntu lortzeko asmoz abiatuko dira Donostiara eta gauzak ondo badoaz puntuekin itzul daitezkeela pentsa daiteke.

Mondra Emakume Taldeak, bestalde, Nafarroako Corellaren kontra erakutsi beharko du zer egiteko gauza den larunbatean. Nafarrak aurten igo badira ere, maila honetan primeran dabilta. Horren lekuko, sailkapenean duten bosgarren tokia. Juanina Garai entrenatzaileak, ezin izango du berriro Idurre eta Larraitz zelairatu. Biek min hartuta sigitzen dute.



# Lau arrasatear Gipuzkoako Kros txapelketan

Kadete mailako Gipuzkoako Kros Txapelketa jokatu da Lazkaon igandean. Probak goizeko 10:30etan hasiko dira. Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak lau ordezkari izango ditu hantxe. Alazne Ruiz de Munainek, 2.200 metro izango ditu aurrean. Fernango Nogales, Iñaki Juez eta Julen Maiztegik, 5.000 metroak. Etxeko ordezkariak badute dominaren bat lortzeko aukerarik. Hala ere, krosa denez, lurraren egoerak eragin handia izan dezake.

Larunbatean, bestalde, Eskola Arteko Parte Hartze Libreko lasterketak izango dira Tolosan. Haur mailako korrikalariak daude zuzenduta. Lasterketa hauetara lau atleta eramango ditu Fernando Zufiria entrenatzaileak.



Fernando Nogales dominaren bat eskuratzen saiatuko da Lazkaon.

## Euskadiko Karate Txapelketan zortzerik ez

Arrasateko karatekek ez dute zorte handirik izan Euskadiko Karate txapelketan. Saioa Karate eskolatik zortzi ordezkari joan behar zuten, baina horietatik lau gaisotu egin ziren. Jose Manuel Petite, gripeak jota, ez zen txapelketa joan. Erik eta Alaitz azaldu arren, sasoi-sasoian ez zeudenez, ezin izan zuten mailarik erakutsi. Hala ere, Alaitzek lan polita egin zuela adierazi digu Iñaki entrenatzaileak. Idoia Aranburuzabala, berriz, hirugarren postua eskuratu zuen 53 kilo azpikoetan. Albiste txarra Mariano Santosen lesioa izan zen. Aurpegiaren golpe handia hartu, eta bertan behera utzi behar izan zuen txapelketa. Isidor Ugartek ere ez zuen txapelketan bere trebezia erakusteko aukerarik izan.

Martxoan beste bi erronka izango dituzte Arrasateko karatekek. Martxoko lehen asteburuan Haur eta Gazte Mailako Gipuzkoako Txapelketa jokatu da Azkoitian. Hurrengoan, Taldeen Arteko Gipuzkoako txapelketa, hau ere Azkoitian. Arrasatearrek bietan hartuko dute parte.

## Harrobiko txirrindulariak martxoan abiatuko dira

Dorletako Ama Eskolaren aurkezpena egin zen larunbatean. Dagoeneko, beraz, denboraldiarekin hasteko gertu daude. Aurten lau taldek osatuko dute eskola. Gazteak, lehen eta bigarren mailako kadeteak eta lehen eta bigarren mailako haurrak. Guztira hogeita hemeretzi txirrindulari. Harrobiko txirrindulari hauen lehen lasterketak martxoaren 7an eta 8an jokatu dira. Gazteak Eibarrera joango dira; bigarren urte-



ko kadeteak, Beasainera eta lehen urteko kadeteak, Azpeitiara. Zortzerik onena guztiei!

## Meatzerrekako Frontoia

Larunbatean Meatzerrekako frontoia inauguratu da, goizeko 11.30etan. Ekitaldian gazte eta afizionatu mailako bi pilota partida ikusi ahal izango dira. Elkoro eta Etxaniz pilotari profesionalak ere agertuko dira ekitaldira.



**XABIER ZUBIZARRETA** (HBko MAHI NAZIONALEKO KIDEA)

# “Ez dut alkatetzara berri

**H**iru aldiz irabazi zituen hauteskundeak eta hamar urtez izan zen Arrasateko alkate. Urrian ia lau urte egingo ditu Eusko Legebiltzarreko parlamentario gisa. Orain HBko Mahai Nazionaleko kide hautatu dute. Hala ere, Xabier Zubizarreta Fagor Automation kooperatibara joaten da eguneroko lanera.

— **Nola sartu zinen politikaren zurrunbiloan?**

— Lehenengo HOAC taldean eta Aretxabaletako parrokiaren inguruko taldeetan hasi nintzen, baita kristau mugimenduetan ere. 68an edo, ETA-ren fronte kulturalan sartu nintzen.

— **Ibili zenuen armarik?**

— Sekula ez nuen armarik ibili.

— **75ean ihes egin behar izan zenuen.**

— Bai. Iparraldera joan

nintzen. 77an hona itzuli eta gero, EHAS inguruan ibili nintzen, HBn sartu aurretik.

— **Zein izango da zure ekarpena Mahai Nazionalera?**

— Urteen puruz bizkarratu dudana esperientzia.

— **Hau behin behineko Mahai Nazionala izango da?**

— Hau Mahai Nazionala da. Gertatzen dena da espetxean ere badugula. Gurea ordezkoa da. Bi urteko agintaldia dugu.

— **Joseba Alvarez ala Patxi Zabaleta. Norengandik hurbilago?**

— Biengandik nago oso hurbil, ze euren arteko dife-

rentziak oso txikiak dira. Zenbait jokoeratan agian adosago egon naiteke Josebarekin, baina tira.

— **Zeintzuk izango dira Mahai Nazional berriaren lehentasunak?**

— Gure ildo nagusia Oldartzen proposamenak definitzen du. Eraikuntza nazionala azpimarratu nahi dugu. Baita justizian oinarritutako bakebidea. Euskal Herriko beste alderdiekin ere harremanak berriro indartzeko ahaleginak egingo ditugu.



“Gure Mahai Nazionala espetxean dutenek guk bulego baten erreketara salatu nahi izatea kafkianoa iruditzen zait”



# “Hori aurkezteko asmorik”

— Hori aipatu duzunez, HB ez da geratu erabat baztertuta, maniobratzeko ahalmenik barik?

— Bai. Sekulako kanpainagorria egin da HBren kontra. Gu oso eroso sentitzen gara geure proiektua defenditzen. Beharbada horregatik hasi dira denetarik bitartekoak erabiltzen gu espetxeratzeko, zigortzeko eta zirikatzeko. Baina oraindik babes handia dugu herrian. Hor dago Bilboko azken kale agerraldia.

— Ikusten diozu irtenberik bizi dugun istiluari?

— Bai. Praktikan ez dakit zer pauso emango diren, baina azken aldian nabaritzen dut gizartearen borondate garbia liskar honi irtenbidea eman dakion. Erreformak ere porrot egin du. Bestetik, hor dago ETAk berak alternatiba demokratikoarekin egin duen eskaintza eta espetxeetan iri-ki duen suetena.

— Elkarriren eta beste batzuen aldetik izan da hirugarren esparru bat edo, sortzeko ahalegina. Zer iritzi duzu horren inguruan?

— Beste esparru bat baino, ahalegin bat dela esango nuke. Hirugarren esparruaren kontu hori aginteak erabili duen kontu bat da, gure artean zatiketa eragiteko. Gertatzen dena da herria irtenbidea eskatzen ari dela, baina Espainiako gobernuak saihestu egiten duela.

— ELA-LAB-EHNE-Elkarri elkartu ziren eta kale agerraldi

handi bat egin behar zute-nean, ETAk PPko zinegotzi bat hil zuen. HBko askok gogor kritikatu zuten atentatua. Zuk nola ikusi zenuen?

— Ekintza hura ez zen izan beste batzuk baino gogorragoa. Mesederik egin ote zion zuk aipatu duzun talde multzoari denborak esango du. Bata eta bestea, kale agerraldia eta ekintza, ez ziren zertan lotu behar. Errua beti ETARI leporatzen zaio, baina zenbat aldiz ez ote du esan gobernuak ez dela mugituko? Inmobilitismo hori inoiz ez da aipatzen.

— ETAn ez dago inmobilitismorik?

— Etsita nago ezetz.

— Zu kooperatibista zara. Zer sentitu zenuen joan den astean Caja Laboralen kontra Arrasaten egindako erasoaren aurrean?

— Berriz ere pena eta samina, herri honetan bizi dugun egoeragatik.

— HBk ez du eraso hori salatu.

— Gure Mahai Nazionala espetxean dutenek guk bulego baten erreketara salatu nahi izatea kafkianoa iruditzen zait.

— Baduzu Arrasateko alkatetzara berriro aurkezteko asmorik?

— Ez. Uste dut denbora larregi egin dudala alkatetzan. Etsita nago, gehienez jota, bi legegintzaldi egin beharko lirakeela alkatetzan. Horregatik ez naiz aurkeztuko. ■

“Zenbait jokoeratan agian adosago egon naiteke Joseba Alvarezekin Patxi Zabaletarekin baino, baina tira, biengandik nago hurbil”



**BAZTER-ALDE**

J A T E T X E A

**Denboraldiko platerak, giro onenean**

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: (943) 79 24 58

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11  
ARRASATE

**TXOKO  
TABERNA**

Gure berezitasunak, pintxo eta  
mokau gozoak



# Zapelaitza

**H**egazti eder hau marroia da gehienguan, nahiz eta jantzi desberdinak izan dituzakeen. Bularrean luma zuririkak ditu, lepoa motza eta arrano burua. Buztana eta hegok zabalak eta borobilduak ditu eta hegada baldar samarra, airean ondo moldatzen den arren.

Udalatx inguruan ugari dira txori txikiak eta, txanxangorria, txolarrea eta besteren bat salbu, ederto zorroztu behar da ikusmena, katalejo eta guzti, haiek ondo ikusteko. Baina bada pare bat, inguruan ibiliz gero, berehala ikusiko ditugunak. Hauen artean, zapelaitza. Izan ere, arranoa baino txikiagoa da, baina ederra du tamaina. Urrutitik ikus daiteke. Aldika, hantxe dagoela nabarmenduz bezala, oihu egiten du. Zirraragarria da zeruan gora ikustea hegok pixka bat jasota, zeruko jaurna baillitza, oihuka. Beren artean jolasean ikustea ere txundigarria izan liteke.

Batek baino gehiagok arranoarekin nahastuko du. Batez ere zuhaitzen baten gainean, edo askotan ohi duen bezala, posteren baten gainean eserita dagoenean. Baina arranoak aspaldi desagertu ziren Udalatx inguruetan, dirudienegizakiak ingurunea aldatutakoan (pinua ekarriz, adibidez) ehi-



Zapelaitza izan liteke Udalatx inguruan geratzen den harrapari handi bakarra.

zarik gabe geratu zirelako eta baita gizakiaren harrapaketa zuzenagatik (eskopeta tiroak, arrautza harrapaketak, etab.). Gipuzkoan aurkituriko arrano gutxienez artean, adibidez, bat Ataunen topatu zen, 1981ean. Urtebete zuen eta hiltzorian, ehizatariaren batek tiroak jota. Horiek bezala, aztoreak eta arrano sugezaleak ere falta dira, antzeko arrazoiak tarteko, seguruasko. Beraz, desagertu edo alde egin.

Zapelaitzekin ez zen horrelakorik gertatu. Zergatik? Argiagoa, burutsuagoa zela-

ko? Udalako baba beltza jaten zutelako? Ez halakorik, baikik eta, aurrekoak ez bezala, gizakiaren interesa pizten ez duten bestelako janariak dituelako gustuko: intsektuak eta saguak, batez ere (hortik datorio gaztelaniazko "ratonero" izena). Hitz gutxitan, *sekulako suertie* izan zuen.

Liburuek diote belatz handia, nahiz eta gutxi geratu, hemendik zehar ibil daitekeela. Hitz hauek idazten dituenak gutxienez, ez du ikusi. Hemen ez balego, zapelaitza izango litzateke Udalatx ingu-

runeko eguneko harrapari handien kronika beltzean bizirik geratzen zaigun bakarra.

Zorionez edo zoritxarrez, argi eta garbi dago gaur egun gizakiok inoiz baino ahalmen handiagoa dugula ingurunea aldatzeko eta, aldi berean, ondoan dabilzan animalien eta landareen bizitza edo heriotza erabakitzeko. Gure esku dago, bada, gure mendietako altxor preziatuenetako baten, zapelaitzaren, iraupena ziurtatzea.

Urtzi Mendizabal

## JAI ZALE TABERNA

- Bokalak
  - Infusio naturalak eta...
  - Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!

Olarte, 37 • Tel.: 79 67 92 • ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tel.: 71 48 45 ESKORIAMATZA



- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

# UGARTE

## ALTZARIAK DEKORAZIOA

### ARROZTEGIA



San Juan, 1  
(Gasolindegiaren parean)  
BERGARA  
Telefono eta Faxa: 76 54 91

# Zorionak!

**ATB**  
ARRASATE

Zorionak ATB, zorionak Arrasate eta mila esker zuen laguntzagatik!


- Albistegiak
- Mondrasport
- Lotsa Barik
- Kaleidoskopia
- Munduari Buelbaka
- Tertulixan
- Kukaratxa Motel
- Astebete

# 8 urte!



## ■ Agustin Aranburu

ARRASATE ERRUGBI TALDEKO LEHENDAKARIA



**A**rrasateko Errugbi taldeko lehendakaria da 46 urteko arrasatear hau. Agustin ez da komunikabideetan asko irteten, ez zaio gustatzen eta. Azken 28 urteak Euskadiko Kutxan aritu da lanean; gaur egun seguritate arloan. Ezkonduta dago era bi alaba ditu, inoiz egin dioten oparirik politenak.

**1.- Zein da zure horoskopoa?** Cancer

**2.- Sinestuna zara?** Bai.

**3.- Animalia bihurtzekotan?** Hartza

**4.- Zure akats bat/gauza on bat?** Konfiantza, kasu bietan.

**5.- Zerk lotsarazten zaitu?** Ezerk ere ez.

**6.- Amets bat?** Errugbi zelai on bat

**7.- Zer kenduko zenuke mundutik?** Gezurra.

**8.- Gertakizun historiko bat?** Hirosimako leherketa.

**9.- Nor miresten duzu?** Inor ez bereziki.

**10.- Zeri diozu beldurra?** Ezerri ere ez.

**11.- Zeozer garbatzen zaizu?** Egindakoa egina dago.

**12.- Negar egin duzun azken aldia?** Ez dut gogoratzen.

**13.- Zer falta zaio Arrasateri?** Gauza asko, baina ezer ez bereziki.

**14.- Eta zuri?** Daukadanarekin konformatzen naiz.

**15.- Lanbidez aldatzekotan?** Ez nuke aldaketuko.

**16.- Arrasateko gustuko toki bat?** Monterron.

**17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Gauza asko.

**18.- Zein egunkari irakurtzen duzu?** *El Diario Vasco*.

**19.- Gustuko janari bat?** Bildotsa eta angulak.

**20.- Liburu on bat?** *Cronica De Una Muerte Anunciada*

**21.- Filmik onena/txarreña?** Dos Hombres Y Un Destino / Asko daude.

**22.- Musika talderik onena/txarreña?** Oskorri / Ez dakit, musika gehiena gustatzen zait.

**23.- Telebistako saiorik onena/txarreña?** *Kiroletako guztiak / Telesailak*

**24.- Egin dizuten oparirik politena?** Nire alabak.

**25.- Denbora libre zertan pasatzen duzu?** Kirola egiten eta errugbian.

**26.- Oporretarako toki bat?** Pirinioak.

**27.- Etxeko lanik gorrotagarriena?** Arropa lisatzea

**28.- Gomendio bat?** Bizitzaz gozatu.

**29.- Zeren alde emango zenuke bizia?** Familiaren alde.

**30.- 200 milioi pta. irabaziz gero?** Gaur baino apur bat hobeto biziko nintzateke.

**OPEL**



**TAKOLO AUTOAK**


Araba etorbidea, 3  
(ESKATU pabilioia)  
ARRASATE  
Tel.: 79 05 86



JOSE RAMON PEREZ, Erraldoi eta Kilikien taldeko lehendakaria

# “Erraza da erraldoiei dantzan eragitea”

Erraldoiei dantzan nola eragin ikasi nahiko zenuke? Erraldoi eta Kilikien Konpartsak ikastaroa antolatu nahi du maiatzerako. Badi-ra hamahiru urte taldea sortu zela, eta hasieratik hor dabilzanek eskertu egingo lukete noizean behin erreleboa hartu ahal izatea. Hogeita bost lagun dabilta gaur egun konpartsan, “jende nahikoa” kideen esanetan, baina beso eta hanka berriak ondo etorriko lirateke.



- Nola izango da ikastaroa?

- Maiatzeko lau larunbatetan elkartuko gara, ordu eta erdiz. Erraldioen dantzetako erritmoa eta pausoak beti berdinak dira, jokoak da bate-tik bestera aldatzen dena.

- Konpartsako kide bihurtzeak zer konpromezu ekartzen du?

- Konpromezurik handiena irteerak dira. Arrasateko jai guztietan ateratzen gara, eta urtean lau bat aldiz, beste herri batzuetara. Horrez gain, erraldoiak eta kilikiak zaindu egin behar izaten dira.

- Entseiuak noiz eta nola egiten dituzue?

- Beharra somatzen denean, irteera baten bezperetan eta, Aldaigaineko etxearen kanpoaldean aritzen gara erraldoiekin dantzan. Ez daukagu maiztasun jakinik.

- Zer behar da erraldoiei dantzan eragiteko?

- Ezer ez. Garaiera da baldintza bakarra. Batzuetan gertatu izan da pertsona txiki samarra izatea, eta erraldoiak hankekin etengabe lurrean jotzea. Batzuk ez dira ausartzen, baina erraza da. Hirurogei kilo inguruko pisua dute, baina dantzaren

egitura oso logikoa da eta erraz ibiltzen dira. Beldurra kentzea da kontua.

- Neskak animatu izan dira?

- Pare bat izan ditugu. Nesken arazoa garaiera izaten da.

## Martxoaren 8rako hormirudia

Maidar Zubillaga eta Jone Ibabe, 20 urteko arrasatearrek, elkarrekin egin dute Emakumearen Nazioarteko Eguna iragarriko duen hormirudia.

Hormirudiari itxura emateko ideia, aurtengo ediziorako aukeratu den leloak eman zien: *Denok Batera*. Egileen esanetan “irudi honekin azaldu nahi izan dugu sexuen arteko berdintasuna denon gauza dela, elkarrekin bulztatu behar dugula”. Jone eta Maidar Arte Ederak ari dira ikasten Leioan.



### EMAKUMEON TXOKOA

#### MARTXOAK 8 EGITARRUA

**ASTELEHENA, 2**  
Olerki emanaldia.  
Itxaro Borda.  
Monterronen  
18:30etan

**ASTEARTEA, 3**  
Ipuin kontalaria  
Zentroan 16:30etan.

**AZTEAZKENA, 4**  
Ipuin kontalaria  
AEDren egoitzan  
16:30etan

**OSTEGUNA, 5**  
Mahai ingurua.  
Gaia: *Trataera txarrak*. Udaletxeko Pleno Aretoan  
19:00etan

**OSTIRALA, 6**  
Arrasate Irratian.  
Gaia: *Emakumeak baztertuta daude?*  
11:00etatik 12:00etara.

**LARUNBATA, 7**  
Azoka, baserriarrak eta artisauak.  
Goizeko 9:30etan  
Antzerkia, “*Con lo puesto*”, Amaia Antzokian 22:30etan.

#### IGANDEA, 8

- Lunch Bertsoak
- Dantzariak
- Trikitilariak
- Kale Antzerkia
- Talogileak
- Lantegiak

12:30etatik 15:00ak arte

• Kale agerraldia  
19:30etan, Seberon.

**79 09 00**  
Emakume Saila



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Otorala Lizentziatua kalean 45 m<sup>2</sup>ko estudioa salgai. Kontsultarako aproposa. Tel.: 79 27 45.

### 2. Erosi

• Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke 60 m<sup>2</sup> ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

### 3. Errentan emateko

• Aramaion plaza ondoan dagoen etxebizitza alokatzen da. Tel.: 79 60 88.

• Zigorrolan etxebizitza alokagai. Tel.: 79 40 41.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza txikia, atiko edo teilatupea alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gauez.

• Hiru lagunentzako etxebizitza behar da Arrasaten. Tel.: 77 12 00. Xabier Sagartzazu.

### 5. Etxe konpartituak

• Erguinen taldea osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 79 37 66.

• Etxean taldea osatzeko jendea behar da Bergaran, Zubiaurren kaleko 16an, 2. solairuan. Tel.: 76 71 12.

• Lagun bat behar da Eskola ondoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 77 08 44.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

• Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

• Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

• Kontzeziñon lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 76.

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

### 9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauez.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Taberna bat alokatzen da. Tel.: 77 14 93.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Fernandez janaridenda alokatu nahi da. Oso bezero onak ditu. Tel.: 79 48 91 (Aurora). 79 96 39 (etxekoa).

• San Andresen frutadenda eskualdatzen da. Tel.: 79 72 91. Gaueko 21:30etatik aurrera. Maite.

• Bergarako Bolu kalean lau gelako bulegoa alokagai (Osorik edo gelaka). Tel.: 76 58 91.

• Izarra dorrean 110 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Tel.: 79 25 26.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuk toki baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek toki bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun klinika laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 09.

• Asteburuetan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

• Esperientziadun saltzailea lan egiteko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

• Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Orduka ere bai. Tel.: 79 51 29.

• Asteburuetan eta jai egunetan

emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 37 80. Eguedietan.

• Neska gertu umeak zaindu edo kamarero lanak egiteko. Tel.: 79 57 64.

• Neska gerturduka garbiketak egin edo pertsona nagusiak nahiz umeak zaintzeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

### 18. Eskaerak

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 35 73.

• Sukalderako laguntzailea behar da. Tel.: 79 11 25.

• Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

• Adineko senar-emazteak zaintzeko 35 urtetik gorako emakumea behar da. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 76 51 67. Arratsaldeko 20:00etatik 22:00era arte.

• Kamarero gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

• Garraiolari laguntzaile lanetarako mutil arrasatearra behar da. Tel.: 907 70 20 46.

• Kamarera euskalduna eta esperientziaduna behar da. Tel.: 79 24 58.

• Asteburuetarako kamareroa behar da jangelan zerbitzeko. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 79 00 34.

### 19. Denetarik

• Lanak ordenadorez pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko neska bat behar da. Frantssez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Eskuak jarrita osatzeko modu naturala (Reiki). Tel.: 79 45 74.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• OHO, LH, DBH eta latin eta ingeles eskola partikularrak emango



nituzke. Esperientziaduna eta merke. Tel.: 79 47 35.

## 21. Eskaerak

• 2. REMeko ikasgaiak lantzeko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 19 36. Aitor.

• Kontabilitate eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 79 36 83. Gaueko 21:30etatik aurrera deitu.

• 1. LOGSEko ikasle batek kimika eta matematika eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 37.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Yamaha 250 SR Special, SS-AM motorra salgai. 9.000 km. Prezioa: 250.000 pta. Tel.: 79 70 58.

• Peugeot 405 GLD autoa salgai. 1.900 diesela. Gorria. Egoera onean. VI-N. Tel.: 70 02 05

• Opel Corsa 1.200, SS-AC salgai. 250.000 pta. Tel.: 77 02 18.

• Derby markako motorra salgai. 49

cc. Tel.: 79 73 42.

• Super 5 Turbo salgai. Egoera ona. Tel.: 76 56 55 edo 79 75 11. Juan Luis.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bi txakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur berogailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

• Bigarren eskuko Mercury markako parapentea salgai. Tel.: 79 48 09. Itziar.

• Bulegoko lau aulki salgai. Egoera ona. Egongela baterako ere aproposak izan daitezke. Tel.: 79 79 46.

• Xake ordenagailua salgai, erdi prezioan. Berria da. Tel.: 79 57 64.

• Trial-eko bizikleta salgai. Berriberria. 40.000 pta. Tel.: 79 93 03. Iban.

• 10 x 3,5 Movil home-a salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea eta jangela. Oso egoera onean. Tel.: 79 89 86. Gauez.

### 27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

### 29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa oparituko nuke ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

### 31. Galdu

• Giltzak galdu ditut Uribe auzoan. Tel.: 71 53 40.

• Urtarrilaren 20an edo 21ean urrezko eskumuturrekoa galdu nuen Arra-

saten. Zuria eta gorria da. Tel.: 79 84 23.

• Joan den larunbatean Casio markako erlojua galdu nuen San Viator Txikin futbol entrenamenduan. Tel.: 79 17 32.

### 32. Aurkitu

• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

• Muru bidean ezkontzako eratzuna aurkitu nuen. Tel.: 79 53 40. Gaueko 10:00etatik aurrera.

• Eskola Politekniko inguruan Rover markako auto baten giltzak aurkitu nituen. Ikastetxe nagusian daude. Tel.: 77 16 61.

• Corbeta markako mendiko bizikleta aurkitu dugu. Galdu duenak Udaltzaingoarekin jarri dadila harremanetan. Tel.: 79 14 39.

### 37. Bestelakoak

• Artzain txakur aleman eme baten bila nabil nirearekin nahasteko (nirea artzain alemanaren eta artzain alsaziarren nahasketa da). Tel.: 70 03 37 edo 79 36 12.



# AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 09 09

## SOLARIUM-A

### UVA izpirik?


Bai, eskerrik asko, baina... Fototipo ikerketa egin eta gero, eta berme os duen tresna batekin.

**Ez utzi pasatzen eskaintza hau!**

### Eskaintza Berezia!

Bonua: 10 saio + 1 opari = 9.000 pta.

Eskaintza 98ko martxoaren 27an bukatzen da.



**Txanda eskatu 79 09 09 an.**



## ■ Horoskopoa

- **Aries** *Candle in the wind* biru informaticoarekin jai izango duzu.
- **Taurus** Etxean dituzun landareek hiruz-palau metroko altuera hartuko dute.
- **Gemini** Paperen artean itoko zara! Garbitu bulegoa!
- **Cancer** Horrela segituz gero, ahaztu egingo zaizu barre egiten.
- **Leo** Zure bihotzeko kuttunak inoiz baino maiteago zaitu.
- **Virgo** Poesia bakarrik irteten da zure ahotik.
- **Libra** Zurrunbilo kaotikoaren hipozentruan aurkituko zara.
- **Scorpio** Zure etxeko hormak urre kolorez margotu beharko zenituzke.
- **Sagittarius** Banketxean duzun dirua lapurtuko dizute.
- **Capricorn** Ez sartu eskua lehoiaren ahoan.
- **Aquarius** Zuhaitzaren fruituak jasotzeko ordua heldu zaizu.
- **Piscis** Umore onak gaitz gaitzietatik libratuko zaitu.

## ■ Hitz gurutzatuak

1	2	3		4	5	6	7
8				9			
10			11				
12			13			14	
15		16			17		
18				19			
20						21	

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Norbait edo zerbait zaintzen duen pertsona. 8. Baratzetan hazten den landare jangarria. 9. Zeinu. 10. Norbaiti zerbait eman saritzat. 12. Ibaiak, lakuak eta itsasoa betetzen dituen likidua. 13. Elkarki lotutako metalezko eraztun-lerroa. 15. Letoniako hiriburua. 17. Agitu aditzaren infinitiboa. 18. Kaosari dagokiona. 20. Agataren barietate preziatua. 21. Sodioa.

**Bertikalak** 1. Jon, Arrasate Saskibaloi Taldeko lehendakariaren abizena. 2. Ia konturatu gabe. 3. Gai baten errakuntzan emaitza den gas-masa argitsu eta beroa. 4. Hayworth, *Gilda* filmea egin zuen aktorea. 5. (Ald.) Eskuoinak lurrean direla ibiliz, lauoinka. 6. Lugo-ko ibilgailuetan. 7. Adi, erne. 11. Erretzeko erabiltzen den mineral solido eta beltza. 14. Espazioaren posizio bat izan. 16. Edozein gauzatan, lurretik urrunen dagoen aldea. 19. (Ald.) Omen.

**Horizontalak:** 1. Begirale, 8. Aza, 9. Ikur, 10. Sartu, 12. Ur, 13. Katea, 15. Riga, 17. Agt, 18. Kao-  
tiko, 20. Onize, 21. Na.  
**Bertikalak:** 1. Basurko, 2. Ezartan, 3. Gar, 4. Rita, 5. (Ald.) Katuka, 6. Lu, 7. Emtai, 11. Ikatz, 14.  
Egon, 16. Goi, 19. (Ald.) Ei.



# Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

## Kazetaria

### Baldintzak

- Euskara ondo menderatzea
- Kazetaritza ezagutzea
- Gida baimena eta autoa

### Langunearen betebeharrak

- Asteburuetan eta jaiegunetan kazetari lanak egitea Arrasate Pressen eta Arrasate Telebistan.

**Curriculumak aurkezteko epea MARTXOAREN 13an bukatuko da.**

**Curriculumak ARKOko Administrazio bulegoan jasoko dira**

Otalora Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 79 02 26



# Sari erakargarriak, zuzen erantzunez gero

## Arrasate Kirolak Lehiaketa


Asteleheneko *Mondrasport* kirol saioan berriua agertu zen Arrasate Kirolak lehiaketa. Sari berriak eta beste era bateko galderak.

Hemendik aurrera kirol saioaren hasieran Itxaro Zubillaga aurkezleak bi edo hiru galdera egingo ditu. Batzuetan azarnak edo pistak eman go dira, laguntzeko; beste batzuetan ez. Ikusleek, saioan zehar deitu ahal izango dute Arrasate Telebistara (77 06 90).

Lehiaketaren ordua aurreratu egin da, etxeko gazte txoei aukera eman nahi zaie eta, eurek ere parte har dezaten. Galdera guztiak harreman zuzena izango dute kirolarekin.

Sariei dagokienez, astelehen batean inork ez badu asmatzen, sari hori hurrengo astelehenerako gordeko da.

Astelehenero *Mondrasport* kirol saioan, sari doto-



Itxaro Zubillaga, *Mondrasport* saioko arduraduna.

reak eskuratzeko aukera paregabea izango duzue Arrasate Kirolak lehiaketan. Parte

hartzeko gogoia izango da baldintza bakarra. Kirolzaileok ez galdu aukera!

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### LARUNBATA

9:00 **Albistegia**  
9:30 **Musika**  
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarriekin.  
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaiola eta Eusebio Iñarrarekin.  
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Albistegia**  
9:30-11:00 **Goizoro**  
14:30-16:00 **Bixau orduan**

### GAUEZ

**Astelehena**  
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.

**Asteartea**  
22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.

**Asteazkena**  
22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek egindako magazina.

**Osteguna**  
22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaïttin Allenderek.

**Ostirala**  
22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.

23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 27	ASTELEHENA, 2	ASTEARTEA, 3	ASTEAZKENA, 4	OSTEGUNA, 5	OSTIRALA, 6
Astean zehar eskainitako saiorik interresgarrienaren errepika.	13:30 <b>Astebete</b> . (Errepika)	13:30 <b>Mondrasport</b> . (Errepika)	13:30 <b>Lotsa Barik</b> . (Errepika)	13:30 <b>Munduari Buel-taka</b> . (Errepika)	13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)
13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	19:15 <b>Kukaratxa Motel</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport</b> . Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak eta Arrasate Kirolak lehiaketa.	21:30 <b>Lotsa Barik</b> . Maier Uranga. Gonbidatua: Aitor Furundarena.	21:30 <b>Munduari Buel-taka</b> . Elene Alberdi. Alberto Etxebarria aretxabale-tarrak Namibia Botswana eta Hego Afrikara egindako bidaiaren kontuak eta irudiak azalduko ditu.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	21:30 <b>Astebete</b> . Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 <b>Kaleidoskopioa</b> . Gonbidatuak: Idoia Uranga eta Anabel Arraiza, <i>Goenkaleko</i> aktoreak. (Errepika)				21:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . <i>Betirtze Iñurritegi</i> eta <i>Alazne Ruiz de Munain</i> . Gaztetxoentzako lehiaketa.	





**A** dan de Yarza jaunak utzita-ko etxean batzokia inauguratu zuten egunekoa ei da argazki hau, 1930. urtekoa beraz. Argazkian ikusten den etxea zen batzokia (gaur egun Banco Guipuzcoano dagoen etxea). Batzokiaren inauguraziorako propio sortu zen *Gaztetxoak eta Poxpolinak* dantza taldea, eta etxearen atzealdeko lorategian elkartu ziren,

oroimenerako argazkia egiteko. Gure kalkuluen arabera, gaurko Azoka kaleko asfatuaren gainean daude argazkiko dantzariak.

Zutik, ezkerretik hasita, Luzio Markaide (trajez, Gaztetxoan zuzendaria), Elisa Garai, Juanito Aiastui, Bizente Nafarrete, Imanol Zeziaga, ezezaguna, Jose Mari Lasagabaster, Santi Etxebarria *Zurdo de Mondragon*, Pedro Murguzur, Jesus Kortabarría, Jose

Inazio Mendizabal, Bizente Urzelai, Luis Murguzur, Oregi, Jose Errasti, ezezaguna eta Mikel Arrieta.

Erdiko ilaran, Rosario Bolinaga, Carmen Garai, Felisa Aranburu, Loren Uribarren, Floren Arregi, Laura Ortuoste, Nieves Aranbarri, Juan Juaristi, Sabin Maiztegi, Jose Exposito, Gerardo Garmendia, Carmen Garcia eta Guillermo Ruiz de Alegria.

Beheko ilaran, Maritxin

Villar, Mari Glori Uribetxebarria, Zabaleta, ezezaguna, Bolinaga, Rosario Bolinaga, Osinaga, Uriona, Kontxita Uriona, Kontxita Ugalde, ezezaguna eta "Troko".

Denen aurrean jarrita dauden bi mutikoak Ugalde bikiak dira, Jon eta Andoni.

-----  
*Berriemalea:*  
 Imanol Zeziaga "Divino"  
 Argazkilaria:  
 Valeriano Martinez

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
 ARRASATE  
 Tel.: 79 98 94

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84  
 ARETXABALETAK

**GAMMA**

**ELEKTROLOGIA ZENTRUA BEHIN BETIKO DEPILAZIOA**

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25



**ESKER ONA**

1998ko otsailaren 10ean hil zen **Luis Maria Pagolaren** familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, eta hileta elizkizunera agertu izana.





**ALMEN**

**SAN FRANTZISKO  
XABIER**

**SAN VIATOR**

**UMEZAINZA**

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



# Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



HEZIBIDE



PARTAIDE  
Ikastolak

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

**MATRIKULA** otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

# zatoz ezagutzera



# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



## Sukaldean



dena gertu.

**FAGOR** 

**SUKALDE ERAKUSKETA** Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 00 43

**BAINU ERAKUSKETA** Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 79 99 42